

«Gerla honi ez!»???

PIERRES XARRITTON



BAIONA ez da Bilbao ez Iruña, are gutiago Bagdad edo Alger. Baionan bizi garenok ikusi ta entzun ditugu halere gerleren kontrako manifestariak. Batzuk ere partehartu, hor zabiltzan ikasle, gazte, gizon emazte, abertzale, berde, komunistak, bakezale mota guzietan. Gero haatik, Euskal Telebistan, lizeoko ikasle gazten bazterretik ezagutzen dituzularik —xoko honetan denok elgar ezagutzen baitugu— lizeoko ikasle adina aspaldian iragan duen betiko bizpalua manifestari kapitain handiak, bozgorailua eskuan eta besoa manatari, orduan delako «ikasle» «gazte» «abertzale» «bakezale» «berde» ta beste deitura horiei guzietan (?) galderazko zainua jartzea gogoratzen zaizu. Bainan ez da hori gure solasa.

Beste euskal herrietan ez dakit, bainan Baionan entzun dudan oihu bat bada, «bakezale» naizen honek onar ez dezakedana: «Gerla honi ez! erran eta oihukatu dutenekin, ni ez naiz konforme.

Euskara apur bat dakienari, oihu horrek aiderazten diona ez ote da alabaina: «Beste gerla hari bai!»?, hots «Guk egiten dugun gerla saindu ta sakratuari, hari beti bai!».

Ez, ez naiz konforme horrelako oihuarekin: Ez baitu sinesten gerla izan daitekeela, nihon, sekula, gaurregun, gure gizartearen gaitzen sendagai. Horra zergatik, nere ustez, erran behar dugun euskaldun guzietan, gibelasmorik gabe, argi eta garbi: «Gerlarik ez!» eta kitto.

Saiakeraren hutsunea

JOAN MARI TORREALDAI



BEGIRA egon naiz iaz argitaraturiko liburu-fitxategiak. Eskuarteetan dudana fitxategi horretako liburua, denak dira euskal jatorrikoak, euskaraz pentsatu eta idatziak. Denak dira lehen aldiz argia izan zutenak. Denetik dago beraien artean, erlijio-liburua, etnologiko liburuak, biografia, eta batez ere: haur eta gazte-literatura eta helduen literatura. Begien aurrean dudana zerrenda horretatik aparte daude irakaskuntza liburuak, liburu itzulita eta berrargitaratuak.

Gaien arabera ere fitxaturik dator zerrenda hori. Argitaratzaileek berek jarri dute gai-mota.

Jakinminak akulaturik, zenbat saiakera-liburu dagoen begiratzera jo du. Zenbat uste duzu? Bi eskuetako behatzeekin kontatu daitezke, eta gainera hatzamar bost sobera. Bederatzi saiakera beraz, denetara.

Hori pobrezia intelektuala, hori, Basamortua dirudi. Gutxi idatzi, gutxiago argitaratu eta are gutxiago irakurri. Hau miseria! Zenbat aldizkari-er esker ez balitz, saiari agertu ere ez ia! Izan ere, saiakerari dagokionez, aldizkari mailan gabilza, saio ilaburrean, literaturan, kontakizun motzak bai, baina nobelarik izango ez bagenu bezala.

Zer esan nahi du honek? Ez dugula «euskaraz pentsatzen»? Intelektualki eta kulturalki erdaraz elikatzen dela euskalduna? Ez ote bata eta bestea, eta gehiago ere?

● DEIA

Anti amerikanismoa

Euskal herritarrok espainiar azpiraketa, britainiar harrokeria eta frantziar sua pairatu ditugu, baina historiak ez dio amerikarren kulpaz asko jasan behar izan dugunik.

Europarrok hipokrita eta akonplexatu hutsak gara. Amerikarrek egiten dute gastua eta jartzen dituzte hildakoak, bien bitartean gu zibilizatu, sentikor eta sozialki aurreratuen papera eginez gabiltza bizitzan barna.


AMATIÑO / 1991-I-19

● SUD OUEST

Irabazi beharreko bakea

Azkenik, Frantziaren lekua ez da sekula oso argi agertu gatazka hasi denetik. Defentsa ministroaren irudiko, ez pazi fustak, ez komunistak ez eta ere gehiago osoa gustora utzi ez duen bere posizio anbiguak, Arabengandik bezainbat zail-

HEMEROTEKA



FERRERES / LA VANGUARDIA / 91-I-18

tasun erakarriko dizkio aliatuen aldetik.

HENRI DE GRANDMAISON / 1991-I-19

● EL INDEPENDIENTE

Euforia ekonomikoa garaipen bizkor bat dela-ta

Eta gerraren lehengaia, petrolioa, ondasun bat da zeinaren salneurria ez du xedatzen es-

kaintza eta eskaeraren joko libreak, baizik eta konpainien eta petroliodun Estatuaren oligopolioak.

Oligopolio hau da Irak-eko erregimen politikoaren suntsiketaren onuraduna. Bere administratzaileak ez dira beldur edo irrikagatik mugitzen, baizik eta onuren kalkuloen arabera. Berea garestitu zuten gasolina men-debaldeko munduko kontsumitzaileek gerra desira zezaten. Multinazional handi baten kapital espekulatioak burtsaren beharakada sustatu zuten, eta kontagiaz orokor bihurtuz, ga-

raipen bizkor batek ekonomia- ren norabidea alda eraziko zuelako eritzia hegemoniko bilakatzeko beharrezko depresioa sortarazi zuten. Gerrara bultzatzeko gasolina garestitu eta burtsak merketu zituzten espekulatuak berberak, petrolioa behera eta balore industrialak gora ekarri dituzte orain, Bush Lehendakariaren erabaki militaristarengan konfiantza eragiteko.

TOM PAINE / 1991-I-19

● EL DIARIO VASCO

Transizioa... Norantza?

Euskal biztanleagoak 1978ko Konstituzioan oinarritutako Estatu bat eman dio bere buruari. Estatu hau ez da independentziara joateko bidea.

(...)
Terrorismoaren aurkako kontsentsua lortu, eta uste dut sendotu eta gero, arazo kulturalak sekulako garrantzia hartzen dute eta oso istilutsuak izango dira.

JOSE LUIS LOPEZ DE LA CALLE / 1991-I-19

ZUZENDARIARI

Euskarari zenbaitek etsipena eman

Asko ere asko gustatu zait Joseba Kanpo Lasuen soziologoaren artikulua. Nik beti, edozein lana hasi aurretik, gogoratzen dut Goethe-ren pentsamendua, eta honek zioen zibilizazioa ezin daitekeela oinarri sendoetan eraiki negatibotasunen azterketan ez bada hasten. Hemendik, oso etsigarria bada ere, benetan biziki aurrerapauso ezin argiagora iruditu zait honen izkribua. Gure asmoa Euskal zibilizazioa eraikitzea da, eta ez besteen aurka, baizik eta besteen aurrerapenekin aberastua eta baita besteen aberasgarri ere, zergatik ez!

Antropologian erakusten zaigu nola joan zen mendeko Ingleterran eboluzioaren garapena euren liberalismoan jartzen zen, eta kolonialismoa justifikatzen zuten teoria antropologikoa atzeratuta zeuden beste herrien oihuturak ikertzen aritzen zen. Eta nahikoa gutiespenakin, harrokeriaz.

Joera honi, gaur egun, Etnozentrismoa esaten zaio, eta huts egite galanta da. Aldagaitasunak, besteak beste, gizateriari arazoak aurre egiteko gaitasuna haunditu eta gogortzen dio, hartzen den edozein bidek itenbideak ditu. Ez da derrigorrezkoa Fragak Euskal Herriari begira ingleseraz zioena. Ez, guk ez badugu nahi, eta gure buruaren jabe bagara.

ROMAN GARMENDIA (SORALUZE)

Etxeko hautsak harrotuz bakarrik, ez al gaituk denok itoko?

Gure euskal mundu itiki eta mehar honetan, gehienek dakiten bezala, Patziku Perurera zirikatzaile, narrikatzaile —bertze dohaien artean— trebe eta zorrotza (behar) dugu. Bere idatzeratzaile gure baitako zoko guztiak astinduz ageri-agerian uzten ditu ordurarte alfonbra azpian gordeta edo begibistatik lekutu nahiean eduki ditugun hondakinak. Oraingoan dienez erdal-

danago (euskaldun hipokritago) sentitzen omen du bere burua Egunkaria leitu, EITB entzun-ikusi edo ikastola mundura hurbiltzen den bakoitzean; ahazten bazaiore ere gehitzea hori gogokoa daukan alaez. Nik ezetz derizot: Goizueta honek euskaldun-euskaldunena izan nahi duela uste bait dut; helburu hori lortzearen bideak proposatzen dituela: Egunkaria, EITB eta ikastolak martxa! Ondorioz (?): erdal prentsa, TVE-A, escuela-école troma! (?) Honela, bizia lagunduz gero, XXI. mendean bera izan dastolak martxa! Nortasuna gordetzen duen Grial Sainduaren zaindaria bakarra.

Halaz ere, eta hau erdietsi ezearan, ildo beretik gale dituen bertze lorpenak irabaz ditzake: Euskaldun heterodoxoaren (Egia-zalaren) homologazioa errate baterako.

Ez duk gutti, ez da? Heure aingeru kutsagabearen hegalek dantzatzu sortutako hauts-hodiak garbitzen laguntzeko, zergatik ez haiz, tarteka, anakoreta pulpitotik jaisten?

TXOLTXAN (LESACA)

PERTSONAIA



Carlos Garaikoetxea

PNV ta Euskadiko Ezkerra egin dirade alkartu. Garaikoetxea egingo balitz horiekin konformatu. Guk horixe nahi genduke ta egin dedila gertatu. Euskal Herria danon artian egin dezaten gobernatu.

LUIS OLAETXEA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEAHARRETA INAKI URÍA

Publikitateak: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxa: 46 90 22
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pablioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Publizitatea: Lotoia, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11